



UDALBILTZAKO PARTZUERGOKO KONTSEILU NAGUSIA

2018ko URTARRILAren 26an BURUTUTAKO BATZARRA:

LABURPENA

- 1.- Aurreko Kontseilu Nagusiko akta onartu da bilkura honen lehenengo puntuan.
- 2.- Kuota sistema trialala onartu da bigarren puntuan.
- 3.- 2018ko aurrekontua eta berau gauzatzeko araua hasiera batez onartu da hirugarren puntuan.
- 4.- 2018ko egutegia onartu eta urteko agenda aztertu da laugarren puntuan.
- 5.- Lehendakariaren ebazpenen berri eman da bosgarren puntuan.
- 6.- 2017 urtearen balorazioa egin da seigarren puntuan.
- 7.- 2018ko plangintza azaldu eta eztabaidatu da zazpigarren puntuan.



UDALBILTZA PARTZUERGOAREN KONTSEILU NAGUSIAREN BATZARRALDIKO AKTA

Oiartzungo Udalean, bi mila eta hemezortziko urtarrilaren 26an, arratsaldeko 17'05ak direnean, bildu dira bigarren deialdian, ondoren zerrendatzen diren udaletako ordezkariak, zeintzuk alde zuzenetik beren izendapena aurkeztu duten.

Bertaratutako Udalak:

	UDALA
1	Aduna
2	Alegia
3	Altzo
4	Anoeta
5	Antzuola
6	Araitz
7	Arakaldo
8	Arbizu
9	Areso
10	Asteasu
11	Astigarraga
12	Ataun
13	Basaburua
14	Bera
15	Berriatua
16	Dima
17	Errigoiti
18	Etxarri Aranatz
19	Etxalar
20	Getaria



21	Goizueta
22	Hernani
23	Legutio (beranduago iritsi da)
24	Lizartza
25	Mañaria
26	Oiartzun
27	Olazti
28	Oñati
29	Orexa
30	Otxandio
31	Usurbil

Ez dira bertaratu ondoko udalak: Aizarnazabal, Ajangiz, Amoroto, Aramaio, Arantza, Arratzu, Artea, Atxondo, Aulesti, Bakaiku, Barrundia, Berastegi, Berrobi, Ea, Elduain, Ergoiena, Etxauri, Ezkio, Gatika, Ibarra, Irura, Itsasondo, Iturmendi, Lakuntza, Larrabetzu, Leaburu-Txarama, Leitza, Lezo, Markina- Xemein, Meñaka, Mendaro, Munitibar, Muxika, Ondarroa, Segura, Uharte-Arakil, Urdiain, Zaldibia, Zerain, Zestoa, Ziordia, Ziortza-Bolibar, Zizurkil, Zubieta.

Ez da gonbidatu berezirik egon.

Luis Intxauspe lehendakari jaunak zuzentzen du bilkura.

Udalbiltzako zuzendari bezala, hitzarekin baina botorik gabe Arantza Ruiz de Larrinaga andereak hartu du parte.

Udalbiltzako teknikari bezala, Ainara Iraeta eta Argitxu Etxandi andereek hitzarekin baina botorik gabe parte hartu dute.

Parte hartu eta ekitaldiaren fede ematen du Udalbiltza Partzuergoko idazkaria den Eguzkiñe Aiesa andereak.

Quoruma dagoela ziurtatzean, bilerari hasiera ematen zaio, honako edukiak landuz:



LEHENA.- Aurreko akten onarpena:

Luis Intxauspe lehendakariak egin du puntu honen azalpena.

Zuzenketarik proposatu ez denez, aurreko bilkurako akta aho batez onartua izan da.

BIGARRENA.- Kuota sistemaren egokitzapena Nafarroako Foru Erkidegoan eta Ipar Euskal Herrian.

Batzorde Eragileko kidea den Andoni Gartzia jaunak egin du puntuaren azalpena, dokumentazioaren artean bigarren eranskin gisa bidalitako taularen gainean. Irailean ospaturiko Kontseilu Nagusian kuota sistema onartu bazen ere, eztabaidan zehar batez ere Nafarroako Foru Erkidegoko ordezkarien partetik azaldutako ekarpenak landuz egindako proposamena da gaurkoan aztertuko dena.

Administrazio bakoitzeko erakundeen (Udalen eta Herriko Etxeen) finantzaketa sistema aztertu da azken hilabeteotan. Lurralde juridiko administratibo bakoitzak duen finantzaketaren, eskumenen eta kuotaren arteko oreka mantentzeko helburuarekin, kuota sistema triala planteatzen da: Euskal Hirigune Elkargoko udalerrientzako bat, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrientzako beste bat eta Nafarroako Foru Erkidegokoentzako hirugarren bat. Horretaz gain, Nafarroako Foru Erkidegoan eta Ipar Euskal Herrian herri txikiagoak daudenez, tramuak txikitzea ere proposatzen da.

Hiru motatako egitura hau onartuta, aurreikusitakoa baino aurrekontu txikiagoa izango luke partzuergoak, baina aurreko Kontseilu Nagusian Nafarroako ordezkarien kezka aztertzeko konpromisoa hartua zegoen. Hortaz, oraingoan Batzorde Eragileak egiten duen planteamendua onartuz gero, Euskal Autonomia Erkidegoko herriek azken Kontseilu Nagusian onartutako kuota izango lukete, baina Nafarroako Foru Erkidegoko herrirentzako kuota txikituko litzateke. Ildo beretik, Euskal Hirigune Elkargorako sistema ere landu da, esan bezala, lurralde juridiko administratibo bakoitzeko finantzaketaren, eskumenen eta kuotaren arteko oreka mantentzeko asmoz.

Lurralde juridiko administratibo bakoitzeko kuota sistema bat ezartzea da bozkatuko den planteamendua. Aurkako bozkarik ez da izan; Oñati, Orexa eta Dima abstenitu egin dira, gainerakoek aldeko bozka eman dute. Hortaz, kuota sistema triala



onartua izan da.

HIRUGARRENA.- 2018ko aurrekontua.

Luis Intxauspe lehendakariak nabarmendu du aurreko puntuan kuota sistema berria onartua izan denez, gai ordenaren hirugarren puntuari dagokion dokumentazioaren artean bidalitako B aurrekontuaren proposamena dela eztabaidatu beharrekoa. Hala, proposatzen den aurrekontua 409.045 eurotako da partzuergoaren kasuan eta 500 eurotako Euskal Garapen eta Kohesio Fondoaren erakunde autonomoaren kasuan. Ondoren, nondik norako nagusien azalpena egin du lehendakari jaunak.

Euskal Garapen eta Kohesio Fondoaren aurrekontua, bestetik, ez zen emailerik bidali ez nahasteko. 500 euroko sarrerak izango ditu erakunde autonomoak, partzuergotik joango zaizkionak. Gastuetan, 2. kapituluaren 200 jarri dira (kanpo enpresek egindako lanak partidan) eta 3. kapituluaren (finantza gastuak partidan) 300.

Oñatik 4. kapituluko partiden inguruko nondik norakoa galdetu du, Anai Arteari eta Ipar Euskal Herriko elkarteari dagozkien partidei dagokienean, zehazki. Iaztik Ipar Euskal Herriko Udaltzaria Elkartearen izeneko hautetsien elkartearekin lankidetzan dator partzuergoa; hark teknikari bat du kontratatua, partzuergoarekin batera besteak beste Hurbiltzen programa lantzen ari dena. Anai Arteari emateko diru-laguntzari dagokionez, bestalde, gai ordenean 7. puntuan garatuago azaltzen den Euskaldunen Memorialaren proiektua laguntzeko dela erantzuten da.

Honako puntua bozkagai jarri aurretik, zazpigarren puntua lantzea erabaki da. Aurrekontuaren gaiari berrekiterakoan, galdera edo ekarpen berririk dagoen galdetuta, ezezkia erantzuten denez, honako akordioa hartzea proposatu du Luis Intxauspe lehendakariak:

Lehena.- 2018ko aurrekontua eta honen gauzatzeko araua hasieran onartzea:

Sarrerak				
<i>Kapituluak</i>				<i>EUSKAL GARAPEN</i>
			<i>UDALBILTZA</i>	<i>ETA KOHESIO</i>
			<i>PARTZUERGOA</i>	<i>FONDOA</i>
4	Toki Entitateen Administrazio Orokorreko Transferentziak		409.045	500
	GUZTIRA / TOTAL		409 .045	500
Gastuak				
<i>Kapituluak</i>	<i>Izena</i>		<i>UDALBILTZA</i>	<i>EUSKAL GARAPEN</i>
			<i>PARTZUERGOA</i>	<i>ETA KOHESIO</i>
				<i>FONDOA</i>
1	Langileria Gastuak		185.000	0
2	Ondasun Arruntak eta Zerbitzu Gastuak		146.245	200
3	Finantza Gastuak		700	300
4	Transferentzia Arruntak		74.100	0
6	Inbertsio Errealak		3.000	0
	GUZTIRA		409.045	500

Bigarrena.- Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratu eta 15 egunetan



jendaurrean jartzea.

Hirugarrena.- Erreklamaziorik jasoko ez balitz aurrekontua behin betiko onartutzat jotzea, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Gaia bozketara jarrita, aho batez onartua gelditu da.

LAUGARRENA.- Egutegiaren aurkezpena.

Idazkari andreak urteko jai egunei buruzko azalpena egin du. Ipar Euskal Herrian eta Hego Euskal Herrian izango diren jai egun kopurua berdindu dela nabarmendu da.

2018rako proposatzen den egutegia onartzea erabaki da aho batez.

Laugarren eranskinean bidalitako urteko agendaren azterketa ere egin da. Helburua urterik urte egutegia ahalik eta osatuena izatea dela adierazi du lehendakari jaunak. Gaia eztabaidatzerakoan, udalerrri euskaldunen eguna falta dela gogorarazi du Dimako ordezkariak; maiatzak 26rako dago jarrita data, baina baliteke aldatzea. Uztailaren 14a ere falta da, adierazpenik egin nahi izatekotan.

BOSGARRENA.- Lehendakariaren ebazpenen berri eman.

Idazkari andreak egin du puntu honen azalpena. Azkeneko Kontseilu Nagusiaz geroztik lehendakaritzak emandako ebazpenen berri eman du.

- 1) 18/2017 LE:** Udaltzaria Partzuergoaren 2016ko aurrekontuaren likidazioaren onarpena.
- 2) 19/2017 LE:** Aurreko kontseiluan onartutako kreditu aldaketen espedientearen hasiera.
- 3) 20/2017 LE:** Lehendakariaren eskumena diren gastuen onarpena.
- 4) 21/2017 LE:** Lehendakariaren eskumena diren gastuen onarpena.



- 5) **22/2017 LE:** Udaltzaria Partzuergoaren administrari hautaketaren ondoren Ainhoa Rementeria andrearen izendapena.
- 6) **23/2017 LE:** Lehendakariaren eskumena diren gastuen onarpena.
- 7) **24/2017 LE:** Lehendakariaren eskumena diren gastuen onarpena.
- 8) **25/2017 LE:** Lehendakariaren eskumena diren gastuen onarpena.
- 9) **26/2017 LE:** Lehendakariaren eskumena diren gastuen onarpena.
- 10) **27/2017 LE:** Lehendakariaren eskumena diren gastuen onarpena.
- 11) **28/2017 LE:** Lehendakariaren eskumena diren gastuen onarpena.
- 12) **29/2017 LE:** Lehendakariaren eskumena diren gastuen onarpena.
- 13) **30/2017 LE:** Lehendakariaren eskumena diren gastuen onarpena.
- 14) **31/2017 LE:** Lehendakariaren eskumena diren gastuen onarpena.
- 15) **32/2017 LE:** Lehendakariaren eskumena diren gastuen onarpena.

Hitzen tartea zabaltzerakoan, ez da ekarpenik egon.

SEIGARRENA.- 2017ko balorazioa.

Lehendakari jaunak egin du puntu honen azalpena. Gogoeta prozesuak emandako ondorioekin eta egungo Batzorde Eragilea osatzen duten kideen aukeraketa eginez amaiera eman zitzaion azaroaren 18an Hernaniko Orona gunean ospaturiko Batzar Orokorrean 2017an zehar ildo zentrala izan den Udaltzian Bagabiltza prozesuari.

Bi Kontseilu Nagusiak izan dira 2017an: ekainaren 17an eta irailaren 22an.

2017an zenbait Herriko Etxerekin lanketa egin du Udaltzaria Partzuergoak; Uztaritzek dagoeneko Partzuergokide izateko eskaera egiteko erabakia hartua du, baina Ipar Euskal Herriko hiru herrialdeetan badira beste zenbait herri pentsatzen ari direnak. Hortaz, osaketa nazionalari begira urrats garrantzitsua eman daiteke 2018an.

8



Iruñeko, Gasteizko eta Donostiako Udalekin lehenengo hartu-emanak izan dira 2017an. Erkidegoko hiru Aldundiekin ere izan dira harremanak, Gipuzkoako kasuan 2018ko aurrekontuan diru-laguntza nominatiboa jaso du Udaltzaren Partzuergoarentzako, eta hala omen du aurreikusia 2019rako ere. Harreman instituzionalen normalizatzeko bat eman dela esan daiteke, beraz. Arabako Aldundian hitzarmenik edo bestelako lankidetzarik egiteko aukerak aztertzen ari dira. Bizkaiko Aldundiaren eta partzuergoaren artean datozen aste edo hilabeteotan egingo da bigarren bilera.

Bilboko Udalarekin harremanik izateko saiakerarik egin den galdetu da. Agenda arazo baten eraginez bertako alkateak ezin zuela eta beranduago egiteko utzi zela erantzun du lehendakari jaunak.

Hiru errealitate juridiko administratiboetako gobernuekin ere egon da partzuergoa. Lan teknikoa edo bestelako elkarlanik egiteko azterketan ari da Ipar Euskal Herriko Euskal Hirigune Elkargoarekin. Nafarroako Gobernuarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin ere elkarlana zertan gauzatu daitekeen aztertzen ari dira.

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak elkarlana zertan egin daitekeen ikusteko Tokiko Maparen lanketa amaitu arte itzaroteko eskatu du.

Eudelekin ere zehazkiago aztertzekeo begiratuko da aurrerago.

Instituzio guztiekin harremanak izateko normalizaziorako urratsak eman direla baloratzen da. Instituzio batzuek interes handiagoa agertzen dute, beste batzuen kasuan partzuergoak tiratu behar du.

Eragile sozialekin lanketa egin da 2017an: Anai Artea elkarte, Gure Esku Dago, Sortzen, Gaindegia, Foro Soziala, Sortzen Ikasbatuaz, Kontseilua, eta abar luzea.

Esan bezala, 2017ko ildo zentrala Udaltzaren Bagabiltza prozesua izan da. Eskualde mailako 50 saio egin dira Hego Euskal Herrian, zeintzuetan 500 hautetsik hartu baituen parte zuzenean. Ipar Euskal Herrian buruz burukoaren formatua erabili da prozesuan zehar, 30 hautetsik baino gehiagok parte hartu duelarik. Horretaz gain, 63 herritarrek ere egin dituzte beren ekarpenak, eta 22 eragileren ordezkarietara kontrastatu dira hainbat ildo eta eremu. Prozesuaren emaitza gisa, hiru azpimarratu ditu Lehendakari jaunak: Lehenik, Udaltzaren printzipio historikoen eguneraketa.



Bigarrenik, 2018 eta 2025 bitarte lan ildoak zehaztu izana. Azkenik, Batzorde Eragilea indartu ahal izateko kide berrien aukeraketa egin izana.

2014 eta 2015 urteen bitartean, Pirinioetan Lan eta Bizi programa jarri zen martxan; aurten programa haren balorazioa egin eta bertan parte hartutako onuradun eta tutoreekin bildu eta ondorio jardunaldiak egin ziren Iratiko Etxoletan. Bertan, saretzearen, elkar ezagutzearen eta esperientziak trukatzearen beharra mahaigaineratu eta Udaltzari eta honen erakunde autonomoa den Euskal Garapen eta Kohesio Fondoari egindako lana eskertu zitzaien.

Ikerbiltza programari dagokionean, Euskal Herriko Unibertsitate ezberdinekin harremanetan dihardu Udaltzaria Partzuergoak. Ikasleen lanak udalen beharrekin lotzen dira.

Hurbiltzen programaren bidez Euskal Herri osoko eta, bereziki, Ipar Euskal Herriko eta Hego Euskal Herriko herriak saretzen eta harremantzen jarraitu da 2017an zehar.

Nazioartearen lanketaren gainean, aurten lanketa berezia Kataluniarekin egin dela adierazi du Luis Intxauspe jaunak. AMIrekin *procés*aren inguruan lanketa estua izateaz gain, urriaren 1eko galdeketa parte hartzeko aukera eskaini zitzaien hautetsiei. Horrek hautetsien saretze eta kohesiorako ere balio izan du.

ZAZPIGARRENA.- 2018ko plangintza.

Lehendakari jaunak egin du puntuaren azalpena. Udaltzarian Bagabiltza prozesutik ateratako ondorioen arabera eta 2017an egindako lanek eskatzen dutenaren arabera kudeaketa plana da jarraian aurkeztuko dena, bost lan ildo nagusitan sailka daitekeena: Saretzea, burujabetza eta tokiko garapena, naziotasuna eta nazio eraikuntza, komunikazioa eta nazioartea. Jarraian azalduko diren proiektuetariko bakoitzari arduradun teknikoak eta politikoak ezarri zaizkio, Kontseilu Nagusiak kudeaketa plana onartzekotan 2018a honen lanketan emango dutenak:

Proiektuetako bat Euskaldunen Historiaren Memoriala da. Ipar Euskal Herriko Anai Arteak abiatutako proiektua da. Euskal Herriko historiaren 22 momentu aukeratu dituzte eta Senperen memoriala egitea planteatzen da. Panel, bideo eta QR-



en bitartez azalduko litzateke historia hori. Artista eta eragile ezberdinekin lanketan ari ziren eta Udalbiltza Partzuergoari planteatu zioten proiektuaren parte izateko, eta interesgarritzat jo zen Batzorde Eragilean. Udalbiltzaren konpromisoa 2018rako 18.000 euroko partida eta instituzio ezberdinetan honen aldeko finantzaketa sustatzeko lanak egitea izan zen. Beraz, instituzio ezberdinekin lantzen ari den proiektua da. Lurra Anai Arteak Elkartearena da eta Senpereko Udalak mantenu lana egiteko konpromisoa hartu du. 2018 amaierarako eraikita izatea da asmoa.

Euskal Herriko mapa turistikoa da bigarren proiektua. Hautetsi eta eragileekin batera, Euskal Herri osoa aintzat hartuko duen euskarri fisiko eta digitaletan lantzea da erronka, gaikako mapa ezberdinak izanik. Oartzunek dio Gaindegiari Euskal Herriko mapa turistikoa erosi diola. Gaindegiak egindako proiektua eta partzuergotik planteatzen dena osagarriak direla erantzuten da.

Esperientzien Bankua: Euskal Herriko Udalbiltza Partzuergoak nahiz beste eragile eta erakundeek egindako lanak ezagutzeko eta saretzeko esperientziak bildu eta elkartrukatzeko datza proiektu hau. Esperientzia horiek zabalduz eta esperientzietan parte hartu dutenak harremanetan jarri Euskal Herriko harreman sarea ehuntzeko urrats garrantzitsuak eman nahi dugu.

EHNak azterketa juridiko ekonomikoa behar du aurretik. Prozesuak argiki emandako helburuetako bat da eta proiektu bezala jasota dago.

Ikerbiltza: Unibertsitate eta udal gehiagorekin lan egitea da erronka.

Hurbiltzenekin jarraitzea ere proposatzen da 2018rako. Kasu batzuetan harremanak instituzionalagoak dira, beste batzuetan herritarren artean. 2016an Gasteizen Euskal Herriko emakume errugbilarien lehenengo topaketa egin zen; 2018an bigarren topaketa egitea da asmoa, eta Baionak adierazi zuen anfitrioi lanak egiteko nahia.

Antolaketari dagokionean, talde tekniko disziplina anitza sortzea da erronketako bat. Orain arte programak banatu dira Udalbiltza Partzuergoko teknikariak. Aurrera begira, programa batzuk epe motzagoan hasi eta bukatuko direla eta beste batzuk luzera begirakoak izango direla aurreikusita, lan egitasmoen araberrako banaketa egitea da proposamena, lan anitzagoa eginez, programak lan egin beharrean. Bigarrenik, ekipo teknikoan errealitate juridiko administratibo bakoitzeko pertsona bat egon dadin nahi da; ez da beti posible izango, baina udalerririk



eta harremanak egiteko erraztasuna bilatu nahi da. Partzuergoa osatzen eta handitzen jarraitu nahi da (Herriko Etxeak, eta bestelako udalerrriak), hirugarrenik. Laugarrenik erakunde publiko nahiz herri mugimenduko eragileekin harreman iraunkorrak izateko ahalegina egin nahi da.

Finantzaketa osagarria bilatzea ere 2018rako asmoa da. Kuota sistema berriro ere aldatu da, baina proiektu zehatzak lagundu ahal izateko formulak bilatzen ari da partzuergoa, prozesuan proposamena atera delako. Herritarren ekarpenak jasotzea ere atera zen prozesuan zehar, hortaz, hori ere aztertuko da aurten. Horretaz gain, erakunde publikoekin hitzarmenak sinatzen jarraitzeko apustua berretsi du Lehendakari jaunak.

Aurrekoarekin batera, barnera zein kanpora begirako komunikazio plana hobetzeko lanketa ere egin nahi da 2018an.

Nazioarteari begira, Catalunya, Korsika eta Kaledonia Berriarekin harremanak egin eta sendotzeko aurreikuspena dago 2018rako.

Errigoitik galdera zehatza egin du Ikerbiltzaren inguruan: zein proiektu eta zein udaletxe aukeratzen diren jakin nahi du. Abiapuntua ikasleen eskaeraren edo udalaren eskaera dela erantzun du Lehendakari jaunak; hainbat fakultaterekin dagoeneko harremana eginda dago eta haiek egiten duten eskaintzen arabera ikasle eta udalak bilatu eta saretzen dira. Prozesua eta gero, birformulatzeko asmoa dagoela gehitu du Batzorde Eragileko kide den Berriatuako ordezkariak: dauden proiektu guztietan aportatuko duen programa izatera iristea bilatuko dela aurrerantzean.

Ikerbiltzaren beste potentzialitate bat azpimarratu du Getariako ordezkariak: Zarauzko neska bat proiektu bat egiten ari dela eta, Ikerbiltzaren bi-hiru proiekturen artean aukeratu, udaletik beka txiki bat jarri eta ikaslea, Udalbiltza Partzuergoa eta Udaletxea harremandu nahi ditu Getariak.

Goizuetak duela hilabete batzuk Ikerbiltzari buruzko galdetegi bat pasatu zela gogorarazi du, herri bakoitza zein proiektu lantzen ari zen galdetzen zuena, Ikerbiltzatik lagundu ahal izateko. Herri txikien eta handien arteko, edo herrialdekako edo bestelako banaketarik egiten den galdetu du. Momentu honetan Ikerbiltzako teknikaria ez dago, berraztertu eta berrartu behar den gaia dela dio Lehendakariak. Batzorde Eragileko kide den Usurbilgo ordezkariak Ikerbiltzaren berrosaketari begira pasatu ahal izateko egindako galdetegia izan zela erantzuten du; ez dago urtean



ikerketa proiektua, baizik eta ahalmenaren arabera. Oartzunetik Udalek ikasleak Ikerbiltzara bideratzea posible den galdetzen du. Hortik doa Getariako proposamena, aztertzeko jasotzen dena. Herriarentzako eta ikaslearentzako zerbait praktikoa izan dadin bilatzen da.

Udalbiltzan Bagabiltza prozesuak emandako ondorioen emaitza izan nahi duen kudeaketa planaren inguruko iritzia gehiago eskatzen ditu Lehendakariak. Oartzungo ordezkariak dirurik gabe helburuei behar bezala heltzeko zailtasunak daudela ohartarazi du. Oñatikoak dirua Europar dagoela eta Udalez gaindiko egituretara modu eraginkorrean joateko (Feder dirulaguntzak eta beste) modua bilatzearen beharra azpimarratu du. Euskal Herriko Udaltzaren Partzuergoak aurreiritziak sor ditzakeen arren, Europari begira erakargarria izan daitekeela probestu beharra dagoela gehitu du Oñatiko ordezkariak. Batzorde Eragileko kide den Astigarragako ordezkariak Herriko Etxeak sartzeari horrenbesteko garrantzia eta ahalegin arrazoi horregatik beragatik ematen zaiola gehitu du. Europako diru-laguntzak bilatzea garrantzitsua dela, baina horretarako oraindik ere baliabide gutxi daudela erantzuten du Lehendakariak. Oñatiko ordezkariak helburu moduan hori markatu beharra dagoela berretsi du. Idazkariak aurtengo egituraketa eta antolaketari begira mugaz gaindiko partzuergo modu txukunean bilatzeko erronka ezarri dela, baina aurrerantzean datozen urteei begira prozesuak Europako finantzaketa sistema aztertzeko erronka ezarria dagoela gogorarazi du. Komunikazioan gutxiago gastatu eta aholkularia kontratatzea proposatzen du Oñatiko ordezkariak (Europari begira proiektua modu eraginkorrean saldu ahal izateko aholkularia).

ZORTZIGARRENA.- Galderak eta iradokizunak.

Udalbiltzarekiko atxikimendua adieraztean, interesa zertan duen adierazten du hautetsi bakoitzak. Aurrera begira baliteke proiektuen araberrako lan taldeak sortzea eta, hortaz, baliteke lanketarako hortik tiratzea. Kontrako norantz ere bai: baten bat parte hartzeko prest badago, adierazi dezala.

Eta deialdi honen helburua bete delarik, Lehendakariak bertaratutakoei eskerrak emanez batzarraldia amaitutzat eman du, arratsaldeko seiak eta hogeita bost minutu direnean, nik Idazkari bezala ziurtatzen dudalarik.



IDAZKARIAK